



Espediente zk./Nº Expediente: 2022IGOB0005

Gaia/Asunto: 2022/04/05 Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local 05/04/2022

Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko apirilaren 05ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

Errenteriako Udaletxean, 2022ko apirilaren 05ako 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

Elkarrekin Errenteria

- Maite Gartzia Ontiveros

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, José Manuel Ferradás Freijó (Elkarrekin Errenteria).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

1. 2022ko martxoaren 15ean eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onepena, bidezkoa bada. (2022IGOB0004)

Ohar onekin onartu da:

Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 05 de abril de 2022.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 05 de abril de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejales y Concejales:

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

Elkarrekin Errenteria

- Maite Gartzia Ontiveros

No asiste excusando su inasistencia, José Manuel Ferradás Freijó (Elkarrekin Errenteria).

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria del 15 de marzo de 2022. (2022IGOB0004)

Se aprueba con la siguiente observación:



2022ko martxoaren 15eko bilkuran, Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Errenteria), bertan dagola agertzen da.

Aktak honako hau idatzi behar zuen: Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Maite Gartzia Ontiverosek (Elkarrekin Errenteria).

2. ZU! Zure Udala arreta zerbitzuko zerbitzu kartaren onespena. (2022ZBAR0006)

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legeak, 45. artikuluan jasotzen du udalerriek zerbitzu-kartak edo dokumentu baliokideak onartu ahal izango dituztela. Bertan jasoko dira udal-zerbitzu jakin batzuen ezaugarri nagusiak; erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak adieraziko dira, bai eta zerbitzu horiek ematean hartutako kalitate-konpromisoak ere. 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, nahitaezkoa izango da zerbitzu-karta edo dokumentu baliokideak onartzea.

Ildo horretatik, Errenteriako Udalaren 2019-2023 agintaldi planean aurrikusia dago ZU! Zure Udala arreta zerbitzuaren zerbitzu karta idatzi eta onartzea.

Zerbitzu kartaren idazlanean Desidedatum enpresaren aholkularitza izan dugu.

Zerbitzu karta egiteko udaleko ondorengoekin landu da gaia: informazioaren gizarteko zerbitzuak, hau da, arreta zerbitzua, komunikazioa eta gobernu ona. Bestalde dokumentuaren berri eman da udal eremuetako bileretan eta baita Udal Koordinazio Gune Orokorrean ere.

Zerbitzu-karta dokumentu publiko bat da, eta herritarren eta administrazio publikoaren arteko

Aparece como asistente a la Sesión del día 15 de marzo de 2022 Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Errenteria).

En el acta se debería haber redactado lo siguiente: No asiste excusando su inasistencia, Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Errenteria).

2. Aprobación de la carta de servicios del servicio de atención ZU! Zure Udala. (2022ZBAR0006)

La Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi, en su artículo 45, establece que los municipios podrán aprobar cartas de servicios o documentos equivalentes, en los que se recogerán las características principales de determinados servicios municipales y los derechos y obligaciones de las personas usuarias, así como los compromisos de calidad adquiridos en la prestación de dichos servicios. En los municipios de más de 20.000 habitantes será obligatoria la aprobación de la carta de servicios o documento equivalente.

En este sentido, en el plan de mandato del Ayuntamiento de Errenteria está prevista la redacción y aprobación de la carta de servicios del Servicio de Atención ZU! Zure Udala.

En la redacción de la carta de servicios hemos contado con el asesoramiento de la empresa Desidedatum.

Para elaborar la carta de servicios se ha trabajado el tema con los servicios de la Sociedad de la Información, es decir, con los servicios de atención, comunicación y buen gobierno. Por otra parte, se ha dado cuenta del documento en las reuniones de los 3 ámbitos municipales, así como en *Udal Koordinazio Gunea*, ámbito general de coordinación.

La carta de servicios es un documento público que expresa el compromiso de servicio entre la



zerbitzu-konpromisoa adierazten du. Zerbitzu-karta batek alderdi hauek jasotzen ditu:

-Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

-Zerbitzuaren ezaugarrien deskribapena.

-Erakundeak zerbitzua ematean hartzen dituen kalitate-konpromisoak eta betetze-maila neurtzeko erabiliko diren adierazleak.

Dagoeneko egin dago ZU!ko zerbitzu karta. Zerbitzu kartaren bertsio luzea eta laburra egin dira; osoa edonorren eskura egongo da web gunean, ZU zerbitzuaren atalean, eta baita udal gardentasun atarian ere. Bertsio laburra, eskuorri gisa ere egin da, bertan zerbitzu kartaren informazioa laburki jasoz.

ZUZENBIDE OINARRIAK

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

Arreta zerbitzuaren zerbitzu kartan jasotzen diren konpromisoak bete ahal izateko Udal osoaren inplikazioa, lankidetzeta eta koordinazioa beharrezkoa da; arreta zerbitzua Udalaren ataria eta aurpegia da, eta bertan udal osoari buruzko informazioa ematen da eta baita departamentu askotako tramiteak egin ere.

Informazio gizarteko arduradunak espedientean

ciudadanía y la administración pública. Una carta de servicios recoge:

-Derechos y obligaciones de las personas usuarias.

-Descripción de las características del servicio.

-Los compromisos de calidad que asume la organización en la prestación del servicio y los indicadores que se utilizarán para medir el nivel de cumplimiento.

La carta de servicios de ZU! ya está elaborada. Se han elaborado una versión extensa y una breve de la carta de servicios, que estará a disposición de todo el público en la página web, en el apartado del servicio ZU!, así como en el portal de transparencia municipal. La versión corta se ha realizado también a modo de folleto en el que se recoge brevemente la información de la carta de servicios.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

El cumplimiento de los compromisos recogidos en la Carta de Servicios del Servicio de Atención requiere de la implicación, colaboración y coordinación de todo el Ayuntamiento; el servicio de atención es el portal y rostro del Ayuntamiento, en el que se ofrece información sobre todo el Ayuntamiento y se realizan trámites multidepartamentales.

La responsable del departamento de Sociedad de la



jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Información ha mostrado su conformidad con la propuesta de acuerdo recogida en el expediente.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, en uso de las competencias delegadas por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ERABAKI DU

ACUERDA

1.- ZU! Arreta zerbitzuko zerbitzu karta onartzea, eranskin moduan jasota dagoena.

1.- Aprobar la carta de servicios de ZU! Servicio de Atención que figura como anexo.

2.- Zerbitzu karta udal web gunean eta gardentasun atarian argitara ematea, zerbitzu kartaren bertsio laburtuarekin batera. Era berean, zerbitzu kartaren existentzia herritarrei ezagutzera emango zaie ohiko komunikazio bideak erabilita.

2.- Publicar la carta de servicios en la página web municipal y en el portal de transparencia, junto con su versión resumida. Asimismo, se dará a conocer a la ciudadanía la existencia de la carta de servicios a través de los canales de comunicación habituales.

3.- Zerbitzu kartaren bertsio laburra Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

3.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la versión abreviada de la carta de servicios.

3. 7.taxi lizentziaren eskualdatzea. (2022UTLE0001)

3. Transmisión de licencia de taxi N°7 (2022UTLE0001)

Udalbatzaren 1994ko uztailaren 29ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, baimendu zen 7. Auto-Taxiaren lizenziaren eskualdaketa Juan Jose Loidi Jauregui jaunaren alde.

Por acuerdo plenario de fecha 29 de julio de 1994 se autorizó la transmisión de la licencia municipal de Auto-Taxi (Clase A) n.º 7 a favor de D. Juan Jose Loidi Jáuregui.

2022ko martxoaren 03an Juan Jose Loidi Jauregui jaunak eskatu zuen aipatutako Auto-Taxi lizentzia, Gorka Urruzola Martínez jaunaren alde eskualdatzea.

Con fecha 03 de marzo de 2022, D. Juan Jose Loidi Jáuregui solicita nueva transmisión de la citada licencia de Auto-Taxi n.º 7 a favor de D. Gorka Urruzola Martínez .

ZUZENBIDE OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Errenteriako Auto-Taxi Zerbitzuaren udal-ordenantza 2013ko uztailaren 18an onartua.

- Ordenanza Municipal del servicio de Auto-Taxi de Errenteria aprobada el 18 de julio de 2013.

- 2/2000 Legea, ekainaren 29koa, Bidaiariak herri

- Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público



barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena.

- 243/2002 Dekretua, urriaren 15ekoa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Taxi lizentzia 7 zenbakidunaren egun titularra denak eta baita titular berria izango denak ere agirien bitartez ziurtatu dute transmisioa burutu ahal izateko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituztela. Erosleak xedapenetan ezartzen diren baldintzak bete dituela egiaztatu beharko du esku-aldatze Erabakia jakinarazten zaion hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epean esku-aldatzearen eraginkortasuna baldintza horiek betetzearen menpe gelditzen delarik.

Gorka Urruzola Martinez jaunak, deitua izan denerako froga gainditu ondoren udal gidari baimena lortu du 2022ko martxoaren 25ean.

Udaltzaingoko Ofizialburuak honi buruzko txostena egin du 2022ko martxoaren 28an

Aipatutako Ordenantzan ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzarraren eskumena da ondoko akordioa hartzea

Trafiko eta Garraiko Zujinegotzi Delegatuaren porposamenez, Tokiko Gobernu Batzarra, aho batez,

ERABAKI DU

1.- Baimena ematea 7 zk.-ko Auto-Taxi (A maila) Udal lizentzia eskuz aldatzeko, Gorka Urruzola Martinez jaunaren alde **NAN 72.490.866-H** zenbakiduna, egungo titularra **NAN 15.901.910-D** zenbakidun Juan Jose Loidi Jauregui jauna izanik, **baldintzatuta lehenak erabaki honen jakinarazpena jaso eta HAMABOST EGUNEKO**

Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo.

- Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo.

Tanto el titular actual como la persona propuesta para ser el nuevo titular de la Licencia nº 7 han acreditado documentalmente el cumplimiento de parte de los requisitos establecidos en la legislación vigente para autorizar la transmisión de dicha licencia. El adquirente deberá acreditar los requisitos establecidos en la parte dispositiva en el plazo de 15 días a partir de la notificación del Acuerdo de transmisión, quedando la eficacia de dicha transmisión condicionada al cumplimiento de dichos requisitos.

D. Gorka Urruzola Martínez, habiendo sido convocado a la prueba correspondiente, ha obtenido el permiso municipal de conductor con fecha 25 de marzo de 2022.

El Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe al respecto con fecha 28 de marzo de 2022.

Considerando que la aprobación de este acuerdo es competencia de esta Junta de Gobierno Local, por así establecerlo la citada Ordenanza

A propuesta del Delegado de Trafico y Transporte, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

1.- Autorizar la transmisión de la Licencia Municipal de Autotaxi (Clase A) nº 7 cuyo titular es D. Juan Jose Loidi Jáuregui con DNI nº **15.901.910-D** en favor de **D. Gorka Urruzola Martinez con DNI nº 72.490.866-H**, **condicionada a que este último presente en el plazo máximo de QUINCE DIAS contado a partir de la notificación del presente**



gehieneko epean, aurkeztu ditzan honako agiri hauek, beti ere horrela ez bada baimen hau eraginik gabe geratuko delarik:

- Jarduera hasi izanaren zentsu-aitorpenaren kopia (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako).
- Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian altan egotearen aitortpena.

Aldi berean, titular berriak idatziz adierazi beharko du ezagutzen dituela taxiari buruzko legearen, erregelamenduaren eta udal-ordenantzaren edukiak.

Lizentziaren titular berriak eskualdatzailearen prestazioak mantendu beharko ditu.

Lizentziaren titular berriak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten edo jakinarazitako hutsuneren bat ez badu horretarako emandako epean konpontzen, Auto-Taxiaren lizentziaren eskualdaketa eraginik gabe geratuko da.

2.- Lizentzia eskualdaketa hau hurrengo arauen menpe geratzen da, ekainaren 29ko 2/2000 Legea, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena, eta urriaren 15 eko 243/2002 Dekretua, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erreglamendua. Aldi berean, 2013ko ekainaren 18an onartutako Taxi Zerbitzuaren Udal Ordenantziari, eta momento bakoitzean arlo horretan indarrean degoen gainerako legeria.

3.- Auto-taxi eta beste alokairuzko ibilgailuen lizentziak eta baimen administratiiboak emateagatik tasa ezartzen duen Ordenantzak araututakoaren arabera dagozkion udal zergak ordaindu beharko da.

acuerdo, la siguiente documentación y quedando automáticamente sin efecto en caso contrario:

- Copia de la declaración censal de comienzo de actividad a efectos del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre el valor añadido.
- Declaración de alta en el régimen especial de trabajadoras y trabajadores autónomos de la Seguridad Social.

Al mismo tiempo, la nueva persona titular deberá manifestar por escrito que conoce el contenido de la Ley y del Reglamento del Taxi así como de la Ordenanza Municipal.

La nueva persona titular de la licencia deberá mantener las prestaciones del transmitente.

Si el nuevo titular de licencia no aportara la documentación requerida o no subsanara alguna deficiencia comunicada en el plazo concedido al efecto, quedará sin efecto la transmisión de la licencia de Auto-Taxi.

2.- Esta transmisión de licencia queda sometida a lo dispuesto en la Ley 2/2000 de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y la Ordenanza Municipal del Servicio de Auto-Taxi aprobada el 18 de junio de 2013, y normativa vigente en la materia en cada momento

3.- Se deberán abonar los correspondientes derechos municipales conforme a lo establecido en la Ordenanza Reguladora de la Tasa por otorgamiento de licencias y autorizaciones administrativas de Auto-



taxis y demás vehículos de alquiler.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:25 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 2022ko apirilaren 05a

Errenteria, 05 de abril de 2022

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe782f672-c4ae-40b5-8e71-8f3c3be7731a**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGOB0005-AKTA/ACTA (ERREENTERIAKO UDALA)